ARRAMENDI
PARKE BAT BAINO GEHIAGO

AZKEN TXOSTENA
[2017.12]

SUSTATZAILEA
ERRENTERIAKO UDALA

Errenteria ADN kreaktiboa

DISEINUA ETA IDAZKETA
ASTAZALDI ARK + BESTE

ASTAZALDI arkitekturaestudioa

beSTe
arkitektura agentzia bat



***SINTESIA

HELBURUA

Errenteriako Arramendi esparruak hartu beharreko norabidea xehatzea. Herritar, ordezkari, erabiltzaile eta eragileekin batera, Arramendik dituen baliabide eta esanahi desberdinak marko ireki batean antolatzea. Eremuaren epe labur, ertain eta luzeko garapen estrategia, lan egiteko modu irekien eta erabakitzeko modu deliberatiboen bitartez definitzen hastea.

ATALAK

Azken agiri partekatu hau hiru atal desberdinetan banatzen da:

1*ERABAKITZE PROZESUA: Prozesuaren hiru faseak deskribatzen dituen atala:

- ***1.1*Hitzaurrea:*** Lehen hurbilketa, datu bilketa eta solasaldietatik eratorritako oinarrizko aurrediagnostikoa.
- ***1.2*Deliberazio Gunea:*** Prozesuaren gakoa, herritarrekin batera antolatutako parte hartze jardunaldiak.
- ***1.3*Itzulketa saioa:*** Azken kontraste unea, ekimen plana partekatzeko lan-saioa.

2*PROZESUAREN DIAGNOSTIKOA: Partekatutako materiala aztertu eta gako nagusiak hautematen dituen txostenaren pasartea.

3*GAUZATZEKO OINARRIZKO ILDOAK: Prozesuan adostutakoa egikaritzeko oinarriak biltzen dituen atala.

OINARRIAK

Herritarrekin egindako jardunaldietan etorkizuneko Arramendi Parkearen oinarriak adostu dira:

1*IZAERA NATURALA BERMATU: Arramendi parke naturala izango da etorkizunean, eraikuntza berriengandik aske. Parkearen izaera mantendu, babestu eta zainduko da.

2*ERABILERA DESBERDINAK ZONIFIKATU: Parkean kirol espazioek, lasai egoteko guneek, ekintza kulturalek edota txakurrek lekua dute. Eremu desberdinak landu beharko dira, baliabide eta azpiegiturak birbanatuz eta espazio moldakor eta malguak sortuz.

3*MEMORIA HISTORIKOA LANDU: Garai Karlistetako Gotorlekua zaharberritzeaz gain, heziketa proiektu desberdinen garapenarekin lotu nahi da parkearen biziberritzea.

GAUZATZEA

Oinarrizko ideia horiek gauzatzeko, *EKIMEN PLANA sortu da. Plangintzarako agiri estrategiko eta programatiko bat, herritarren parte hartze prozesutik eratorritako ekintzak jaso eta lehenesten dituena. 15 ekimen nagusi, bere barne neurri desberdinak biltzen dituztenak, amankomuneko marko baten barne garatu egingo direnak.

.....

DISEINUA ETA IDAZKETA

Lan taldeko kideak:

Roman Egaña Salaberria, arkitektoa [Astazaldi Ark S.L.P.]
Xabier Macias Ganuza, arkitektoa [Astazaldi Ark S.L.P.]
Ibon Salaberria San Vicente, arkitektoa [beSTe]
Eñaut Muñoa Artola, arkitektoa [Astazaldi Ark S.L.P.]
Hektor Espin Larreta, arkitektoa [Astazaldi Ark S.L.P.]

***AGIRIAREN AURKIBIDEA**

1. ERABAKITZE PROZESUA

1.1. LEHEN FASEA: HITZAURREA 5
1.1.1. LEKUTZEA 6
1.1.2. BILAKAERA HISTORIKOA 7
1.1.2.1. EREMU LIBREA 7
1.1.2.2. PARKE URBANO BERRIA 7
1.1.2.3. AZKEN URTEETAKO EKINTZAK 7
1.1.2.4. ORTOFOTO SEKUENTZIA 7
1.1.3. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA ETA AURREBALDINTZAK 10
1.1.3.1. PLAN ESTRATEGIKOA 2025 11
1.1.3.2. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA 12
1.1.3.3. PLAN BEREZIA – 36 SEKTOREA ARRAMENDI 13
1.1.3.4. BESTELAKOAK 14
1.1.4. DEKALOGOA 15
1.1.4.1. ESKALA HANDIA: LURRALDEA – ERRENTERIA 15
1.1.4.2. ESKALA ERTAINA: ERRENTERIA URBANOA 15
1.1.4.3. ESKALA TXIKIA: AUZOAK ETA ARRAMENDI 15
1.1.4.4. ARRAMENDI: INTERPRETAZIO PLANOAK 16

1.2. BIGARREN FASEA: DELIBERAZIO GUNEA 19
1.2.1. SARRERA: METODOLOGIA ETA HELBURUAK 20
1.2.2. PARTE HARTZE JARDUNALDIAK 20
1.2.2.1. LEHEN ASTEBURUA 20
1.2.2.2. BIGARREN ASTEBURUA 21

1.3. HIRUGARREN FASEA: ITZULKETA SAIOA 23
1.3.1. SARRERA METODOLOGIA ETA HELBURUAK 24
1.3.2. ITZULKETA SAIOAREN EBALUAZIOA 24
1.3.3. EKIMEN FITXA PARTEKATUAK 24

2. PROZESUAREN DIAGNOSTIKOA

2.1. PROZESUAREN IBILBIDEAREN ESKEMA 34
**Prozesuko urrats desberdinak lotu eta adostutako neurriak biltzen dituen eskema*

2.2. EKIMENEN HIERARKIAREN ESKEMA 35
**Prozesutik eratorritako 15 ekimenak hierarkizatu eta sailkatzen dituen eskema*

2.3. EKIMENAK GAUZATZEKO BIDE-ORRIAREN ESKEMA 36
**15 ekimenak egikaritzeko jarraitu beharreko ibilbidea deskribatzen duen orrialdea*

3. GAUZATZEKO OINARRIZKO ILDOAK

3.1. ETORKIZUNERAKO LAN ILDO NAGUSIAK 38

3.2. AZKEN EMAITZA: EKIMEN ZERRENDA 39

3.3. EKIMEN PLANA: ADOSTUTAKO NEURRI GUZTIAK 40
3.3.1. IZAERA OROKORREKO EKIMENAK ETA ADOSTUTAKO NEURRIAK 40
3.3.2. IZAERA LOKALEKO EKIMENAK ETA AOSTUTAKO NEURRIAK 41

3.4. INFORMAZIO PLANOAK 42
3.4.1. SEKTOREAREN EGUNGO MUGAKETA 43
3.4.2. SEKTOREAREN BALDINTZA TOPOGRAFIKOAK 44
3.4.3. EGUNGO BIDE SAREA ETA BEGETAZIOA 45

3.5. OINARRIZKO PROPOSAMEN PLANOAK 46
3.5.1. ESPARRUAREN MUGAKETA BERRIA 47
3.5.2. ZONAKATZE OROKORRA 48
3.5.3. ZONAKATZE XEHATUA 49
3.5.4. A ZONALDEA: GOIALDEKO EKIMENAK 50
3.5.5. B ZONALDEA: BEHEALDEKO EKIMENAK 51
3.5.6. C ZONALDEA (I): MAGALETAKO EKIMENAK 52
3.5.7. C ZONALDEA (II): MAGALETAKO EKIMENAK 53
3.5.8. MUGIKORTASUN PLANAREN OINARRIAK 54
3.5.9. ILUMINAZIO PROIEKTUAREN OINARRIAK 55
3.5.10. URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OINARRIAK 56



[1. ATALA]

ERABAKITZE PROZESUA



[2. ATALA]



[3. ATALA]



[1. ATALA]

1.1 1.2 1.3

LEHEN FASEA

HITZAURREA



1.1.1 LEKUTZEA

Arramendi Errenteriako herrigunearen hegoaldean kokatutako espazio librea da, udalerriko hirigune historikotik 500 metrora. Orotara 36 Arramendi Sektoreak 161.191 m^2-ko azalera du. Bere punturik garaienean 79 metroko altura hartzen du (Guda Karlistetako gotorlekuaren aztarnen inguruan); kotarik baxuena, aldiz, 22 metro ingurukoa da, mendebaldean, Pontika auzoarekin elkarbanatzen duen magalean hartzen duena.

Sektoreak hiru auzo desberdinekin partekatzen ditu mugak. Iparraldean, Gaztaño auzoarekin; mendebaldean, Pontikako etxebizitza multzoekin; eta ekialdean Agustinak auzoarekin. Hegoaldean, aldiz, GI-20 errepideak eteten du aztergai dugun esparrua. Mugaz bestalde, eremuaren jarraipena ikus daiteke, komunikabide sarearen eraikuntzaren aurretik unitate bakar bat osatzen zuen lurraldea. Bertan bizirauten duten baserriek kota baxuagoan eraikitako garapen industrial berriekin elkarbanatzen dituzte mugak.

Udalerri mailako parkea da Arramendi, perimetro inguruko auzoetatik haratago doan eremua. Hartzen duen altuerak, gainera, eskualdean gailentzeko aukera ematen dio.

1.1.2 BILAKAERA HISTORIKOA

1.1.2.1 EREMU LIBREA

Arramendi parkeak eskualdean duen kokapen estrategikoak, aintzinean izan zezakeen paperaren, rolaren inguruko pistak ematen dizkigu. Bertatik, lurraldearen ikuspegia globala da: Urdaburuko basoa, Aiako Harrietako meatze-eremua, Jaizkibelgo gotorleku karlisten arrastoak, San Markoseko gotorlekua, Errenteriako hirigunea, Pasaiako portua...

Hura da 1874ean eraikitako gotorlekutik dugun bisioa. Bigarren Guda Karlistan eraikitakoa, ustez, Oiartzun ibaiaren azken atalaren zainketa lanak egiteko erabiltzen zen. Garai batean ibaiaren azken tartea nabigagarria zen, komertzio-negozioetarako erabili ohi zelarik. Haren inguruko kontrola izateko kokapen ezin hobea zuen aztergai dugun eremuaren gotorleku ohiak.

Lurraldea erabat antropizatu zen arte, eremu basatia izan zen Arramendi; sasiz josia baina zuhaiztia urrikoa. Bertako baserrietako jabeek kudeatzen zuten gertuko eremua: belarra jaso, artoa erein, abeltzantza lanak… Hala ere, Errenteriak jasandako hiri-garapen bortitzak aztergai dugun esparruan eraldaketak eragin zituen. Aldaketa nagusia, autobidearen eraikuntzak eragin zuen. Hegoaldera, udalerriko landalurrera irekitzen zen eremu librea, herrigunera begira jarri zuen aipatutako eskuhartzeak.

Denbora aurrera joan ahala, XX. mendeko 50-70. hamarkadetan emandako hazkundearen ondorioz, eremuarenganako presioa areagotzen joan zen pixkanaka. Gogora dezagun, Erdi Arotik itsasoaren eraginpean garatutako herrian, industrializazioaren fenomenoak eragin handia izan zuela. XIX. mendean finkatu ziren lehenengo enpresen egoitzak Errenterian; XX. mendean, prozesua areagotu eta haren eraginez, udalerriaren berehalako hazkundea eman zen. Tokiko ekonomiak gora egin eta etorkin uholdea nabaria izan zen.

Herriak jasandako industrializazio prozesu sakonak, neurririk gabeko biztanleriaren gorakada eragin zuen denbora tarte txikian. Bizilagun berriei etxebizitza eskaintzeko premiak, hazkunde desorekatua eragin zuen, aurreikuspenik gabeko auzo berrien eraikuntza. Arramendi inguruko lurraldea hiritartzen joan zen pixkanaka, eremua mugatuz, akotatuz.

Mugarri mugakideei dagokienean, Gaztaño auzoa, 1940-1950 urteen artean garatutakoa, betidanik izan dugu lekukotuta Arramendin. Etxebizitza erabilera nagusitzen da, profil baxu bereko eraikinak, haien arteko espazio interstizialak gune komunitario bilakatzen direlarik. Agustinak eta Pontika auzoek Arramendirekin izan duten harremana, aldiz, nabarmen aldatu da azken 50 urteetan.

1.1.2.2 PARKE URBANO BERRIA

Arestian esan bezala, autobidearen eraikuntzak eta udalerriaren hazkundeak, Arramendiren kontzepzioa erabat aldatu zuten. Eremua akotatuta, hirigunera begira, eraikuntza berrien presiopean. 80-90eko hamarkadetan, eremua utzita, abandonatua egon zen. Errotutako baserriak eta haien aktibitateak desagertuta, eremua noraezean.

XX. mende bukaeran, Errenterian lantegi eskola jarri zen martxan; haiek heldu zioten esparruari, herriguneko "birika" berreskuratu asmoz. Udalak eremua bereganatu eta 2001. urtean hiritartze lanei hasiera eman zitzaien Arramendi parke bilakatzeko helburuarekin.

Proiektuaren xedea, muinora iristeko oinezkoentzako asfaltatutako bideak eraikitzea; batetik, Gaztaño auzotik abiatuta eta bestetik hegoaldean kokatutako Arramendi baserritik hasita. Urbanizazio lanak goiko lautada inguratzen duten bide zirkularrekin osatu ziren, garai karlistako gotorlekuaren arrastoen inguruan eraikitakoak.

Oinezkoentzako bideak sortzeaz gain, 2003an kantina eraiki zen Arramendiko muinoan. Erabilera anitzeko espazioa: batetik naturaren interpretaziorako gunea; bestetik, ostalaritza zerbitzua. Urte osoan asteburu eta jaiegunetan (maiatzetik irailera bitartean, biak barne, egunero) zerbitzua emango zuen taberna aurreikusten zen, baita Errenteriako espazio naturalen inguruko informazio erreferentzia gunea ere. Hala ere, proposamenak ez zuen arrakastarik izan. Urte berean, hura esleitzeko lehiaketa gauzatu eta ez zen inor aurkeztu. Ordutik, eraikina ez da erabilgarri egon.

Bestalde, zonaldearen balio historiko eta arkeologikoa ikusirik, Aranzadi Zientzia Elkartearen Arkeologia Historikoko sailak, gotorleku karlistaren aztarnen azterketa arkeologikoari ekin zion hiritartze jarduketekin batera. Azterketa-lanak 2001-2002 urteen artean gauzatu ziren, lurraldearen eta gotorlekuaren jatorrizko egituraketa determinatuz. Egindako bide berriak jatorrizko galtzaden arrastoen gainean eraiki zirela ere ondorioztatu zuten.

2004-2007 urteen artean, urbanizazio lanen bigarren faseari ekin zitzaion, ekialdeko magalaren azpiko zelaigunean egindako jarduketekin. Beranduago aztertuko den Plan Bereziak aurreikusitako zuzkidurak egokitzeko lurra egokitu zen. Emaitza gisa, azken urteotan, behin behineko ekitaldi handien instalazioak (zirkoa, zezen-plaza…) txertatzeko erabili den 65 metro inguruko diametrodun espazio zirkularra, erabilera jarrairik ez duena. Zirkoaz gain, auto-karabanen behin behineko geldiunea ere bada.

Aipatu Arramendiko hiritartze lan hauek garatu bitartean, inguruko hiru auzoek (Gaztaño, Pontika eta Agustinak) bere ibilbide propioa osatu dute.

Agustinak auzoa, ekialdean kokatuta, Arramendi sektorean egindako hiritartze lanekin batera garatzen joan da. XX. mendearen bigarren erdian erabat osatutako multzoa da, izaera langileko etxebizitza-garapena. XXI. mende hasieran, 2000 eta 2007 bitartean, eraikuntza tipologia berriak azaldu ziren: familia bakarreko etxebizitzak, Arramendi eremuaren perimetroa kolonizatuz, parkeari mugak ezarriz. Garapenari amaiera emateko, hego-ekialdean autobidearekin mugan, Txillida-Parkea gauzatu zen 2006-2007 urteen artean; auzoa kolmatatzen duen arnasgunea. Ilara berri honek eta autobidearen garapen prozesuak, eremua ekialdetik gurutzatzen zuen ubidearen "desagerpena" ekarri zuen. Jolas-eremu eta garbiketarako espazio izandakoa, garai bateko Arramendiren izaeraren isla.

Pontika auzoa eta Arramendiren arteko harremana bestelakoa izan da. Industrializazio prozesuak eragindako etorkin uholdeari erantzuteko herriak lurra okupatzeko hartutako estrategiaren isla da Pontika. Nukleoa osatzen duten etxebizitza dorre altuek erlazio bisuala besterik ez dute aztergai dugun parkearekin.

Berriki eraikitako etxebizitza promozio berriak izan dira eremuaren perimetroa hartu dutenak. Azalera horiek, garai batean, industria zaharrek okupatzen zituzten. XX. mendearen bukaeran desagertzen hasi, eta Lanera Fabrileko etxebizitzen eraikuntzarekin batera, perimetrora eta Gaztaño auzora gerturatzen hasi ziren hazkunde berriak. 2000 eta 2007 urteen artean etxebizitza bloke desberdinek kolonizatu dute lurra, Pontika eta Gaztaño auzoak lotzen dituen Altxu kalea 2008an eraikitzen hasi ziren arte.

Orduantxe hasi zen Gaztaño auzoaren eraldaketa. 2008-2016 urteen artean eraikitako etxebizitza eta dotazioek auzoaren konfigurazioan eraldaketak sortu dituzte, profil berriak sortuz eta barneko espazio ez-eraikien hierarkia aldatuz.

Azkenik, GI-20-aren inguruan egindako obrak areagotu dute herrigunea eta landalurraren arteko zatiketa. Jarduera ekonomikoetara bideratutako hazkundea kolmatatuta, autobiaz bestaldeko eremu librean bizirauten duten hiru baserriek, garai batean eremuak zuen izaera dakarte gogora. Bigarren ingurabidearen eraikuntzak, azpialdetik bi eremuak lotzen zituen pasabidearen desagerpena eragin zuen.

1.1.2.3 AZKEN URTEETAKO EKIMENAK

XXI. mendearen hasieran egindako hiritartze lanek eremuaren balioa nabarmendu, azpimarratu nahi zuten. Herriguneko arnasgune bilakatzeaz gain, bisitariak, bizilagunak parkera erakartzea zen helburu nagusia. Hala ere, aurreikuspenak ez dira guztiz bete. Honen harira, azken urteotan, eremuari zuzenean eragiten dioten hainbat jarduera proposatu edo gauzatu dira.

Arestian esan bezala, Arramendi jatorrian sasiz josita eremua zen. Egun ikusgai dugun zuhaiztia azken urteotan landatutakoa da batik bat. Hamabi bat urte badira urtero zuhaitz berriak landatzen direla, Belaunaldien Basoa izeneko proiektuaren baitan. Arramendi *baso* bilakatu asmoz eta belaunaldi desberdinen arteko harremana estutzeko jarri zen martxan ekimen hau. Urtero jaiotako haurrek, haien zuhaitz eta zuhaixkak dituzte Arramendiko magalean.

Azken urteotan, mantenu lan handiak egin dira eremua zaindu eta belardia egoki mantentzeko. Espezie desberdinak landatu dira (elorri zuria, sagarrondoak…) aberastasun handiko gune bilakatuz urtetik urtera. Autobideari itsatsita dagoen eremua da landu gabe dagoen espazio bakarra; gainontzekoak mantenu eta jarraipen baten pean daude. Etorkizunera begira, 5-6 urteren buruan espezie desberdinez (haritzak, pagoak, gaztainak, lizarrak…) osatutako basoa erabat kolmatatzea aurreikusten da.

Duela hiru urte, aldiz, herri-baratzen proiektua jarri zen martxan Arramendin. 2014ko uztailean inauguratu zen, Errenteriako Udalak eta Kutxa Ekogune erakundeak sinatutako kolaborazio akordioaren ostean. 71 partzela daude orotara (horietako bi egokituak), 30-60 m2-ko azalera dutenak. Helburua, nekazaritza ekologikoa sustatzea; baita aisialdi aktiborako eta izaera komunitarioko espazio bilakatzea ere. Arrakasta izan duen espazioa da, etorkizunean haren inguruan hausnartzera bultzatzen duena.

Kantinaren birgaitzea edo aktibazioa, mahai gainean dagoen beste gai nagusietako bat. Ekogarapenek 2017ko otsailean aurkeztutako Errenteriako Oiartzun ibaiaren Paisaiaren Akzio Planaren dinamizazio eta jarraipenerako zerbitzuak lanaren markoaren barne, eraikinaren etorkizuneko erabileraren inguruan hausnartzen da.

Ibaiaren Interpretazio Zentru bilakatuko den Fanderiako errotarekin izan dezakeen bateragarritasuna aztertzen du dokumentuak. Fanderiako errotan, ibaia, paisaia eta natur ondareen inguruan informatu eta sentsibilizatzea helburu izango duen ekipamendu berrian, ostalaritza zerbitzuak ere eskaintzea aurreikusten da. Bi zuzkiduren kooperaziorako aukera aztertzen bada ere, txostenak baztertu egiten du ideia, Arramendiko eraikinak egun dituen dimentsioak eta kokapena (Fanderiako errotatik urrun) ikusirik.

Hala ere, kantinak, Arramendiko parkean izan dezakeen papera aldarrikatzen du Ekogarapenek. Zuzkidura lokalago bat proposatzen du, Gotorleku Karlistaren aztarnen gertutasunaz baliatuz, elementu historikoen interpretazio gune izan daitekeena. Hura aktibatzeko, irabazi asmorik gabeko elkarte, erakunde sozialen edo udal departamentu desberdinek sustatutako aktibitateak garatzeko espazioa egokia izan daitekeela uste du, baita ostalaritza zerbitzua autozerbitzu edo kantinaren birgaitze bitartez martxan jartzeko ere. Kanpoaldearekin izan behar duen lotura ere aldarrikatzen da.

Azkenik, aipatu, Eusko Jaurlaritzak berriki plazaratu duela 51 Zuzkidura Bizitoki eraikitzeko proposamena Arramendi Sektorean, eremuaren epe ertain eta luzerako garapen estrategia baldintzatzen duen albistea. Helburua 2.143 m2-ko partzela batean, alokairua sustatzen duen zerbitzua eskaintzea, Plan Bereziak aurreikusitako 3. adineko egoitzaren lekua hartuz.

1.1.2.4 ORTOFOTO SEKUENTZIA

Ondorengo bi orrialdeetan ibilbide historikoa irudikatzen duten irudiak atxiki dira, Errenteriako urte desberdinetako ortofotoak erabilita. Hala ere, aipatu, azaltzen diren irudietan erabilitako delimitazioa edo mugaketa ez datorrela bat Arramendi 36 Sektorearen mugarekin. Erabilitako trazak Arramendi Parkearen fikziozko eragin eremua besterik ez du adierazten. Arramendi 36 Sektorearen muga hurrengo ataletako planoetan azaltzen da.



***1954. urteko ortofotoa**

A*Gaztaño auzoa | **B***Agustinak auzoa | **C***Gotorlekuaren aztarnak



***1997. urteko ortofotoa**

A*Agustinak auzoko obren hasiera, eremua eta perimetroaren hiritartze prozesuaren hasiera



***1983. urteko ortofotoa**

A*Autobide berria | **B***Pontika auzoaren sorrera| **C***Agustinak auzoaren hazkundea| **D***Zubi azpiko pasabidea



***2001. urteko ortofotoa**

A*Arramendiko hiritartze lanen hasiera | **B***Industriagunearen garapena| **C***Agustinakeko tipologia berriak



***2004. urteko ortofotoa**

A*Agustinak eta Pontikako ertzetan eraikuntzak | **B***Kantina| **C***Hego-ekialdeko hiritartze lanak | **E***Chillida parkea



***2014. urteko ortofotoa**

A*Belaunaldien basoa | **B***Herri-baratzak



***2008. urteko ortofotoa**

A*Gaztañoko etxebizitza tipologia berrien eraikuntzen hasiera | **B***GI-20 –aren inguruko obrak, bigarren ingurabidea

1.1.3. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA ETA AURREBALDINTZAK



A **GOTORLEKUAREN AZTARNAK**
RESTOS DEL FUERTE

**1874ko gotorlekuaren aztarnak, zainketa eta kontrolerako erabilitakoa. Aranzadi Zientzia Elkarteak 2001 - 2002 urteetan azterketa arkeologikoa osatu zuen.*
*Restos del fuerte de 1874, utilizado como lugar de custodia y control. La Sociedad de Ciencias Aranzadi realizó una prospección arqueológica entre 2001 y 2002.

B **KANTINA**
CANTINA

**2004ean eraikitako kantina, Lantegi Eskolaren eskutik. Taberna eta interpretazio gune izan behar zuen; egun, itxita jarraitzen du.*
*Cantina construida en 2004, obra de la Escuela Taller. Tenía que albergar un bar y un centro de interpretación; sin embargo hoy continúa cerrada.

C **ESPLANADA**
ESPLANADA

**2004 eta 2007 urteen artean egindako hiritartze lanen barruan asfaltutako 60-65 metro inguruko diametrodun esplanada, egun, zirkoa eta auto-karabanen geldiuneetarako erabilitzen dena.*
*Esplanada circular de unos 60-65 metros de diámetro, realizada durante las obras realizadas entre 2004 y 2007. Actualmente, utilizada por el circo y como aparcamiento de autocaravanas.

D **HERRI BARATZAK**
HUERTAS MUNICIPALES

**2014an inauguratutako herri-baratzak. 30-60 m2-ko azaleradun 71 partzela, nekazaritza ekologikoa sustatu asmoz. Aisirako espazio komunitario bilakatzeko nahia.*
*Huertas municipales inauguradas en 2014. 71 parcelas de 30-60 m2 para fomentar la agricultura ecológica y convertirse en espacio comunitario para el ocio.

E **PARKERAKO SARBIDEAK**
ENTRADAS AL PARQUE

**Gaztaño, Agustinak eta Pontika auzoekin elkarbanatzen ditu mugak Arramendi parkeak. Lehenengo bi auzoetatik sarbidea naturala da; Pontikatik, aldiz, pendiza altua da.*
*El parque Arramendi es limítrofe con los barrios de Gaztaño, Agustinas y Pontika. La entrada natural al parque se realiza por los dos primeros. En el caso de Pontika, la pendiente es importante.

F **BELAUNALDIEN BASOA**
BOSQUE GENERACIONAL

**Belaunaldien basoak, esparrua zuhaitz espezie desberdinez kolonizatzea ahalbidetzeaz gain, bizilagunak parkera gerturatu ditu, espazio komunitario bilakatuz.*
*El Bosque Generacional, además de colonizar el lugar de árboles de diferentes especies, ha acercado a los habitantes del municipio al parque, convirtiéndolo en espacio comunitario.

G **ERAIKUNTZA BERRIAK**
NUEVAS CONSTRUCCIONES

**Arramendi 36 sektorearen barruan eta muga horietatik kanpo, eraikuntza berriak azalduko dira etorkizunean: 51 zuzkidura bizitoki (G1), Lousada kaleko etxebizitza promozioa (G2), Gaztaño eta Agustinakeko mugako eraikuntza (G3).*
*Dentro y fuera del sector 36 Arramendi se construirá en un futuro cercano: 51 alojamientos dotacionales (G1), la nueva promoción de viviendas de la calle Lousada (G2), la construcción en el límite entre Gaztaño y Agustinas (G3).

1.1.3.1 PLAN ESTRATEGIKOA 2025

2013ko urtarrilean Errenteriako Udalak Diagnostiko Estrategikoa 2012 aurkeztu ostean, 2013ko urrian, Plan Estrategikoa 2025 dokumentua plazaratu zuen. Bertan, badira Udalak markatutako hainbat ekintza Arramendiren estrategian eragina izan dezaketenak. Hurrengo lerroetan ideia azpimarragarrienak:

Erronkak

3. Erronka: Bizi, lan egin eta gozatzeko hiria

- *Herritarrentzako hiri erakargarria izango dena, bisitarientzat ere erakargarria izango da. Errenteria ez baldin bada herritarrak erakartzeko gai, ez da kanpoko bisitariak erakartzeko gai izango, edo beste era batera esanda, bertako jendearentzat Errenteria erakargarria baldin bada, bisitan datozen pertsonentzat ere hala izango da. (…) Errenteria bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko leku ona bihurtzea da helburua. Hori dela eta, bizitza-kalitate ona eskaini behar du; bizitza kalitate onaz ingurune osasungarria eta erakargarria eskaini behar du, baita zerbitzuen gama osoa ere.*
- *Alde Zaharra eta ibaia, bizitza-kalitatea hobetzeko elementu nagusiak.*

5. erronka: Gune naturalei balioa ematen dien eta ingurune iraunkorra bultzatzen duen hiria

- *Altxor naturalak eta ondare kultural nabarmena, baina ondo baloratu gabea eta Errenteriarekin zerikusirik ez duena. Errenteriak, gaur egun, babestutako ondare natural zabala du, landazabaleko nekazaritza paisaia ederrekin eta bizirik dauden ibaiekin: Oiartzun eta Urumea esate baterako. (…) Udalerriaren zati batek aldaketa atzeraezina jasan badu ere, Errenteriak ibilbide luzea du eta horretan jarraitu behar du; hain zuzen ere, dituen baliabideen kalitatea hobetu behar du eta herritarrek, bere neurrian, ondare horren balioaren berri izan eta udalerriarekin lotutako irudia zabal dezaten lortu behar du. Eremu hauek: Parke Naturala eta izendatu berria den Aiako Harria Mantentzeko Eremu Berezia, Añarbeko basoa ezaugarri gisa duela, Lau Haizeta, Oiartzun ibaiaren ibai zatia eta nekazaritza-paisaia oraina dira, baina baita etorkizuneko aukera ere gero eta sentsibilizatuago dagoen gizartearen aurrean. Baliabide naturalez gain, eta baliabide horiekin oso konektatuta, ondare arkitektoniko eta kultural zabala dago, hauek esate baterako: San Marko gotorlekua eta Txoritokieta, Fanderiako errota, lehenengo hiltegia, hobi arkeologikoak eta baserriak, baita Done Jakue Bidearen trazatua ere.*
- *Garapena eta ingurumena, bide bakarra. Babestea eta hobetzea dira ezinbesteko lehentasunak, baina baita lor daitezkeen aukerak aprobetxatu eta leheneratzea ere. Etorkizunerako baliabide horiek behar dituen udalerriarentzako gakoak dira. Baina betiere, garapenean txertatuz, ez kontrajarritako edo paraleloak diren bideak hartuz. Etorkizuneko Errenteriaren dinamismo ekonomikoak duen potentzial naturala sustatuko duen garapen iraunkorreko ikuspegian babestu beharko du eta bisitariak erakartzearekin lotuta emaitzak lortzeko gai izan behar du (betiere, masiboak ez diren arloen baitan eta elementu kulturalak eta naturalak balioesteko helburuarekin) eta udalerriaren ezaugarria izango den irudi berdea eskainiko du. Baina abantailarik handienak egoiliarrek izan behar dituzte, haiek gozatzen baitute lehendabizi eta horien parte-hartzea eta ekarpena da aberastasun honen oinarria.*
- *Berde gehiago, urdin gehiago, baliabideak hobeto erabiliz. Printzipio horietan oinarrituta, ildo honetan, Plan Estrategikoa hiru esfera handietarantz zuzentzen da. Eremu naturalei dagokienez, kalitatean eta kudeaketan ahalegina egitea proposatzen da, batez ere Aiako Harrian eta Añarben, eta Lau Haizetarako eremu handiari eutsi behar diogu. Bizirauteko nekazaritza-erabilerak behar dituen landazabaleko paisaiarekin konektatuta egon behar du guztiak. Oiartzun ibaia da bigarren alorra; uren kalitatean eta ingurunean izandako bilakaera positiboarekin, bioaniztasunerako aukera izateaz gain, ibaia pasatzen den hiri-paisaiarentzako ere mesedegarria da zalantzarik gabe. Hirugarren eremua energia eta hondakinei dagokie. Eremu horietan Europako arauak berdindu edo gainditzeko helburua dugu, nahiz eta une hauetan gure artean alde handia egon.*

Ildo estrategikoak eta ekintza plana (garapen proposamenak)

8.- Hiri-eremuaren eta etxebizitzaren irisgarritasuna eta kalitatea hobetzea

- *Hiri irisgarria eta segurua: Espazio publikoan oztopoak kentzea eta irisgarritasuna hobetzea. Errenteriako Irisgarritasun Planean ezarritako jarduerak garatzen jarraitzea proposatu dugu. Hortaz, jarraitu egingo dugu denek irisgarritasuna izatea galarazten duten udalerriko inguru eraikian dauden oztopoak kentzen (espaloiak, plazak, maldadun bideak, igogailuak eta irisgarritasuna hobetzeko elementu mekanikoak jartzea, arrapalak…). Alde horretatik, datozen urteetan lehentasuna eman nahi diegu aipatutako planean lehentasun handiko eta handi-ertaineko jardueratzat hartu ditugun jarduerei.*

9.- Herritarren artean bizi-ohitura osasungarriak sustatzea eta ahalbidetzea

- *Errenteria sasoian*
  - *Fisikoki aktiboa eta osasungarria den bizimodua egin dezaten pertsona guztiak mobilizatzea da helburua. Horretarako, hiriak egokitu beharra du, honelako espazio bihurtu behar du:*
    - *Lekualdaketa aktiboak ahalbidetu behar ditu (paseoak, bidegorriak…). Oinezkoen mugigagarritasuna eta oro har motor gabekoa; izan ere, ibilgailu pribatuaren erabilerarekiko ingurumena babesteko abantaila handiak emateaz gain, gaixotasunen prebentzioan (bihotza eta odol-zirkulazioa, arnas aparatua, estresa, antsietatea…) osasun publikorako onura nabarmenak eskaintzen ditu.*
    - *Auzoei parkeak, berdeguneak eta jolas-eremuak jarriko dizkie. Noski, espazio horietan segurtasuna zaindu behar da.*
    - *Askotariko kirol-jarduerak behar bezala egiteko instalazio eta ekipamenduak eskaintzen dituen espazioa. Erabilgarritasun sozial eta kostuaren irizpideak kontuan hartuta, noski.*
    - *Kalitate akustiko ona ziurtatzea (inguru lasaiak, atseginak, zaratarik gabeko espazio natural edo naturalizatuak)*
  - *Garatu beharreko estrategiak honako elementu hauek hartu behar ditu kontuan:*
    - *Inguruneari etekina ateratzea, garraiobide "aktiboak" garatuta. Horretarako, eskolarako, industrialdeetarako eta abarrerako lekualdaketa espezifikoen planak eta espazio publikoen arteko loturak ahalbidetu behar dira.*
    - *Jarduera fisikoaren jardunbide egokiek, elikadura osasungarriak, garraio aktiboak eta abarrek dituzten onuren gainean kontzientzia sortzeko komunikazio kanpainak eta beste ekimen batzuk garatzea urtero. Kanpaina horiek "helburu" diren kolektiboari bideratuta egon behar dute (adinekoak...) eta bizi-ohituretan jokabide aldaketa lortzea da haien helburua. Bidegorri-kiroldegi lineala.*
    - *Kirola eta osasuna integratzera espezifikoki bideratutako kirol-jarduera edo jarduera fisikoak ahalbidetzea.*
    - *Jarduera-aukera zabalagoa eskaintzea adinekoei, ezintasunak dituztenei, gaixotasun kronikoak dituztenei bideratutako eskaintza jasota, eta talde horientzat egokitutako jardunbide egokien gidak prestatzea eta zabaltzea.*
    - *Hezkuntza-sistemaren, elkarteen, kirol-kluben eta kirolaren arloan inplikatutako Administrazioaren maila ugarien arteko loturak indartzea.*
    - *Osasun eta kirolaren arloan etengabeko trebakuntza sustatzea.*
    - *Kirol-instalazio espezifikoak ondo hornituta daudela ziurtatzea. Bidegorri azpiegitura sustatzea, kiroldegi-lineal gisa.*

15.- Tokiko eta landa-eremuko baliabide naturalak babestu eta balioestea

- *Balio naturalak eta bioaniztasunarenak bultzatzea, bai babestutako eremuetan, bai landa-ingurunean. Horrekin lotuta, kontserbazioa azpimarratuko duen eta bertako merkatura kalitatezko produktuak gehituko dituen jardueraren alde egin beharko da.*
- *Habitat naturalak eta flora eta fauna espezie basatien kontserbazioa modu proaktiboan zaintzen dela bermatzea.*
- *Udalerriko paisaiaren kalitatea babestu eta hobetzea, bai biztanleak aintzat hartzeko, bai kanpokoentzat erakargarri izateko.*
- *Errenteriako biztanleek beren ondare aberatsari buruz duten ezagutza eta sentsibilizazioa ugaritzea.*
- *Añarbe eta Aiako Harriko ingurumen-bikaintasuna bultzatzea, Lau Haizeta biziberritzea eta udalerriaren paisaia babestea*
- *Landazabala eta landa-ingurunea balioestea*

17.- Udalerriko mugigagarritasun hobearen eta iraunkorragoaren alde egitea

- *Pertsonetan pentsatutako mugikortasuna. Hauek dira ekimen honen baitan aintzat hartutako ekintzak:*
  - *Garraio publiko kolektiboa sustatu eta lehenestea*
  - *Bizikleten-bidegorrien bideak zabaltzea*
  - *Oinez egindako lekualdaketarako ibilbideak eta hirigunearen oinezkoentzako egonaldi berriak erraztea*
  - *Modalitate artekotasunaren irtenbide adimendunak*
  - *Bide-eremua berrantolatzea, udalerriaren barruan hiriko mugikortasuna hobetzeko*
  - *Talde berezientzako mugigagarritasuna kudeatzeko neurriak lantzea*

.....

Arestian esan bezala, Plan Estrategikoak zerrendatutako hainbat ildo edo ekintzetan zeresana izan dezake Arramendik.

Arramendi Parkea konfinatutako herrigunean espazio libre bezala gailentzen den azken elementua da; bere posizioari esker Errenteriako udalerria eta inguruko herrien ikuspegi globala du: Urdaburuko basoa, Aiako Harriak, Jaizkibel mendia… Hiri tramaren amaiera, zorioneko hondarra da Arramendi; baita landa-lurraren hasiera ere.

Plan Estrategikoak gune naturalei balioa eman nahi die, Errenteriako biztanleek berauen ondare aberatsari buruz duten ezagutza eta sentsibilizazioa areagotuz. Eremuak duen kokapen estrategikoa aintzat hartuta, hiria eta landa eremua artikulatzen dituen errotula bezala funtzionatu dezake Arramendik.

Bestalde, Plan Estrategikoaren beste erronketako bat Errenteria ingurune osasungarri eta erakargarri bat bilakatzea da. Espazio berdeak sortu eta erabili, konektatu, oinezkoen bideak bultzatu, ondarea babestu… asmo guzti horiek aurrera eraman ahal izateko, elementu estrategikoa da aztergai dugun Arramendi eremua.

1.1.3.2 HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

Errenteriako udalerrian indarrean dagoen planeamendu orokorra, Diputatu Kontseiluaren 2004ko otsailaren 3ko Erabakira Egokitutako Dokumentu Bateragina da. Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak lau aldaketa jasan ditu:

- Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Lehen Aldaketa, Diputatuen Kontseiluak 2007ko martxoaren 13an emandako Behin Betiko Onespenaren Erabakia,

  05 Area: Basanoaga/Sorgintxulo, *07 Area: Alaberga*, *14 Area: Erdigunea*, *21 Area: Lartzabal*, *22 Area: Agustinak*, *28 Area: Egiburu* eta *39 Sektorea: Lartzabal/Arraguari dagokiona.*

- Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Bigarren Aldaketa, Osoko Bilkurak 2007ko maiatzaren 18an emandako Behin Betiko Onespenaren Erabakia,

  14/12 EU: Miguel Alduntzin, 1, 2, 3, 6 zk., 14/15: R. Maria Azkue, 16 zk. Esku-hartze unitateei eta 22 Area: Agustinak areari buruzkoa.

- Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Hirugarren Aldaketa Puntuala, 2009ko martxoaren 27an bilkuraren erabakia,

  57. Sektorea Perutxene-Sagasti, 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasunera egokitzekoa.

- Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Laugarren Aldaketa Puntuala, 2009ko martxoaren 27an bilkuraren erabakia,

  hurrengo ekipamendu komunitariorako lurzatiari dagokiona: "Jesusen Bihotza Adinduen egoitza".

Ondorengo paragrafoetan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak Arramendi Parkearen inguruan xedatutakoa bildu da:

A.1 Dokumentua: Hirigintza dokumentua (XI Espazio publikoak – XI.01 Hiriko parke eta lorategiak)

"Bere garrantziagatik, inolako zalantzarik gabe, Arramendi Parkea nabarmendu beharra dago. Indarreko Arau Subsidiarioek, Espazio Libreen Sistema Orokorreko funtsezko elementu gisa, Arramendi 36. Sektorea zehazten eta finkatzen dute. Lur-azalera hori, kontuan izanik bere hedadura, herrigunearekiko hurbiltasuna eta paisaiaren ikuspegitik duen kokapen garrantzitsua, udalerri honek gaur egun ez duen eta hain premiazkoa zaion Hiri Parke hori egiteko lur-eremurik egokiena da.

Eragindako lursail hori guztia udalarentzat izan dadin, Arau Subsidiarioek jarduketa-sistematzat besterentzearena finkatu dute. Nolanahi ere, zehaztu beharra dago orain artean aurreko jabeekin elkarrekiko adostasunez egin izan diren lurzoruen eskurapenen ondorioz, Udala dagoeneko %80 baino portzentaje handiagoa den lur-azalera baten titularra dela.

Diseinu-irizpideei dagokienez, Arramendi mendia Hiri Parkearen izaera berri horretara egokitzeko orduan kontuan izan da errespetu handiz jokatu behar dela bertako topografiarekin. Alde horretatik, sestra kurbetara egokitutako mendi-bideen sare bat jarriko da besterik gabe, erabiltzaileak bertan oinez ibil daitezen. Jakina, hiri altzariez hornitu beharko da, eta batez ere, zuhaitz eta zuhaizka kopuru handi samar bat jarri beharko da aukeratutako espezie desberdinetakoak, lorategi botaniko bat bihurtu ahal izan dadin. Era berean, mendi tontorrean kokaturik dagoen Gotorlekuaren hondakinen birgaitzeari ekitea aurreikusita dago."

C Dokumentua: Hirigintza arauak

Arramendi 36 Sektorearen fitxa:

- *I. Mugaketa:*
  - *I.1 Guztizko Azalera: 161.191 m²*
- *II. Hirigintza-erregimen orokorra:*
  - *II.1 Lurzoruaren Sailkapena: Urbanizagarria*
  - *II.2 Lurzoruaren Sailkapena:*
    - *Komunikazioen Sistema Orokorra:Hiriko Errep. Banatzailea: 6.881 m2*
    - *Espazio Libreen Sistema Orokorra: Parke eta lorategiak: 146.469 m2*
    - *Ekipamendu Komunitario Sistema Orokorra: Kultura: 5.698 m2*
    - *Ekipamendu Komunitario Sistema Orokorra: Asis. Eta beste zerbitzuak: 2.143 m2*
  - *II.3 Hirigintza Esku Hartzerako Erregimena: Sektore bat da. Plan Partzial bat eta Urbanizazio Proiektu bat idaztea exijitzen da.*
  - *II.4 Aurreko Planeamenduko arauetara jotzea:*
    - *Arau Subisidiarioen 12. aldaketa: BBO: 00.10.24*
    - *Arau Subisidiarioen 17. aldaketa: BBO: 02.04.30*

    Horren zehaztapenak mantendu egiten dira, Plan Orokor honetan ezarritakoei kontra egiten dietenak izan ezik. Eremua Komunikazioen Sistema Orokorraren mugakidea da: Hiriarteko Errepidea, eta beraz, Errepideen Foru Araua aplikatu behar da.
  - *II.5 Esku Hartze Unitateak: Eremuak Esku Hartze Unitate bat du.*
- *III. Antolamendu xehatua:*
  - *III.1 Irizpide eta helburuak:*
    - *Bere azalera, Hirigunearekiko hurbiltasuna eta kokapen nagusia kontuan hartuta, leku aproposa da hiri-parke bat egiteko.*
    - *Kirol eta aisialdi instalazioak ezartzeko lurzoru-erreserba bat barne-hartzea.*
    - *Zaharren Egoitza bat ezartzeko lurzoru-erreserba bat barne hartzea.*
    - *Donostiako Bigarren Ingurabideak ukitzen duen bertako bidea lehengoratzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio (oinezkoen pasabidea).*
    - *Gaztañoko erretenaren ibarraren urbanizazioaren garapena erretena aire librean utziz egingo da, eta bertan 500 urteko itzulera-aldiko emarietarako adinako ubideen sekzioari eutsiko zaio.*

      Errenteriako Udal Mugartean interes artistikoa, kulturala, historikoa edo naturalistikoa duten elementu eraikien eta espazio eta elementu naturalen zerrenda barne hartzen duen katalogoan, bereziki babestu beharrekoak eta inolako esku-hartze suntsitzailerik jasoko ez dutelarik, ondoko higiezina barne hartuta dago: Arramendiko Gotorlekua
  - *III.2 Eraikuntza Erregimena:*
    - *Bizilekua: 0 m²(s) eraikia*
    - *Zuzkidura-azalera: 2.500 m²(s) eraikia*

Dokumentu osagarria: Katalogoa

05.- Katalogatutako elementuen erlazioa:

- *05.03 Otros bienes inmuebles de Interés Cultural*
  - *Inmuebles de Arquitectura militar*
    - *Fuerte de Arramendi*

……

Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak Arramendi esparruaren inguruan xedatutakoa aztertuz gero, bi dira azpimarratzeko ideia edo kontzeptu nagusiak:

Batetik, dokumentuak Arramendi 36 Sektorea Urbanizagarri bezala sailkatzen du.

Lur Urbanizagarria hiri erabilera berrien euskarri eta kokaleku izan daitekeen azalera da. Arestian esan bezala, egungo hazkundean urbanizatu gabeko eremu bakarra dugu, elementu eraikien artean arnasgune nagusia, presio urbanistikoari eusten. Garrantzitsua da kontestua ulertzea, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak Arramendi 36 sektorearen inguruko eremuetan aurreikusitakoa aztertzea, etorkizunean Arramendik izango duen izaera ulertzeko. Aurreikuspenek zehaztutako hazkundea jasateko herriguneak autobidea gainditu behar duela argi uzten dute. Dekalogoaren atalean azaldu bezala, etorkizuneko eszena horretan, urbanizagarri bezala kalifikatutako Arramendi, ertzeko esparrua izatetik, elementu zentral bilakatzen da hiri-traman. Egoeraz ohartu eta etorkizuneko presio horren aurrean hartu beharreko norabidea zehaztea ezinbestekotzat jotzen da. Industria-gunearen etorkizuneko kokaera, hazkunde motak eta haien dentsitateak… gai horien inguruko eztabaiden aurrean Arramendiren izaera definitua beharko luke.

Gainera, Arramendi 36 Sektoreari dagokion hirigintza fitxak bi eraikuntza berri aurreikusten ditu: aisia eta kirol ekintzetarako zuzkidura batetik, eta hirugarren adineko pertsonentzako egoitza bestetik (berriki zuzkidura bizitokiengatik ordezkatutakoa). Eraikin berri hauek garatuz gero, eremuaren egituraketan aldaketak sortzeaz gain, parkearen erabileran eta fluxuetan inzidentzia izango dute.

Bestetik, Arramendi Hiri Parke kontsideratzen du.

Arestian deskribatutako hirigintza jarduerek Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak aurreikusitakoa bete du neurri batean. Lorategi Botaniko bihurtzeko nahia, "Belaunaldien Arteko Basoa" proiektuak betetzen ari da; 5-6 urteren buruan espezie desberdinez jositako basoa aurreikusten dute parkeko mantenu arduradunek.

Hala ere, badira kolokan gelditu den beste gai bat: gotorlekua. Katalogatutako elementua izanik, egun utzitako elementua da garai karlistetako gotorlekua. Birgaitze lanak aurreikusten ziren arren, ez da aurrerapauso nabarmenik eman norabide horretan.

1.1.3.3 ARRAMENDI 36 SEKTOREAREN PLAN BEREZIA

Arestian aztertutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, Arramendi 36 Sektorea xehatzeko Plan Berezi baten garapena eskatzen zuen. Hauexek lirateke dokumentuak bildutako zehaztapen nagusiak:

4.- Objetivos y criterios de la ordenación:

Los objetivos determinantes en torno a los cuales se centra el Plan Especial del Sector 36: Arramendi es la adecuación normativa para posibilitar la consecución de los siguientes:

1. *Creación de un espacio de carácter lúdico-recreativo de uso intensivo y diario que responda a la demanda de la población de espacios libres de esparcimiento y de ocio*
2. *Integración de un gran espacio natural situado en pleno núcleo urbano mediante la creación de una serie de puntos de acceso desde los diferentes barrios contiguos, así como una serie de itinerarios adaptados a la topografía del lugar que permitan su recorrido*
3. *Consolidación del Fuerte de Arramendi*
4. *Implantación de una Cantina y un Centro de Interpretación de la Naturaleza*
5. *Inclusión de una reserva de suelo para la implantación de un edificio de Equipamiento Comunitario (Residencia para la tercera edad)*
6. *Implantación de una zona deportiva*
7. *Previsión de un puente peatonal que resuelva la conexión del Sector con los suelos que se disponen al sur de la A-8*

Para la resolución de estos objetivos deberá tenerse en cuenta, con carácter general, la normativa sectorial de aplicación, y entre otras la legislación sobre Promoción de la Accesibilidad.

Por otra parte, en relación con el emplazamiento del Sector, se han de tener en cuenta los siguientes aspectos:

- *Su proximidad a los distintos barrios que conforman los propios límites del Parque, el previsible desarrollo futuro de las zonas colindantes, así como las necesidades propias de la población actual y futura de la ciudad.*
- *Su carácter de espacio natural emergente dentro del macizo edificatorio de los barrios que actualmente lo rodean, la titularidad de las diferentes parcelas enclavadas en él, la topografía de acusadas pendientes, la proximidad de la autopista, la existencia de distintas redes de infraestructuras con especial atención a las redes de gas y de electricidad.*

5.- Soluciones generales

5.1.- Antecedentes

Con fecha de noviembre 2000 fue elaborado por la oficina del Plan General el Proyecto de Obras de Urbanización del Parque de Arramendi el cual sirve de referencia para la formulación del presente Plan Especial, con los lógicos ajustes derivados de las nuevas determinaciones establecidas en el PGOU.

5.2.- Definición general del proyecto

Los objetivos pretendidos para el Sector y con el criterio de enfatizar de forma especial el dotar a la población de un área de esparcimiento, conforman una serie de actuaciones propuestas para lo cual se han tenido en cuenta los aspectos siguientes:

- *Zonas libres tratadas tanto con hierba-césped como con elementos de porte arbustivo y arbóreo que, dotadas de una cierta diversidad biológica, logren dar al conjunto una especial singularidad, a la vez que permitan en un futuro próximo desarrollar actividades de educación ambiental (parque botánico). Asimismo se cumplen, en algunos casos, objetivos más específicos como es el caso concreto de las pantallas previstas en la zona Sur, al lado de la autopista, en la que estas zonas libres sirven para compensar y contrarrestar en cierta medida, los efectos derivados de la presencia y proximidad de esta infraestructura viaria (amortiguación sonora del ruido, etc.,). Se plantean, en la medida de lo posible las diversas actuaciones, zonas de distinta densidad de plantación así como el establecimiento de diferentes especies exóticas y autóctonas.*
- *Circuitos y recorridos que permiten realizar a la vez tanto actividades meramente contemplativas y de paseo o disfrute del entorno como desarrollar actividades deportivas*
- *Áreas de descanso que permitan el esparcimiento y recreo dotándoles del mobiliario correspondiente (bancos, papeleras, fuentes, mesas, farolas, etc.)*
- *Áreas singulares que, por su emplazamiento o por la presencia de determinados elementos, suponen una particularidad destacable dentro del conjunto (Fuerte de Arramendi, Cantina…)*
- *Conformación de circuitos aptos para el tránsito en bicicleta (Bidegorris) en relación con la futura red de viales para ciclistas*

5.2.1.- Accesos

Los accesos al Parque se realizarán desde los cuatro lugares siguientes: el primero desde el Área 41: Masti Loidi, el segundo y el tercero desde el barrio de Gaztaño y el cuarto desde el barrio de Las Agustinas.

Además, se prevé la implantación de un puente peatonal que resuelva la conexión del Sector con los suelos que se disponen al sur de la A-8. Esta actuación resuelve, además, la reposición del paso actualmente bajo esa autopista cuya desaparición está prevista en el Proyecto de Trazado del Segundo Cinturón de Donostia/San Sebastián promovido por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las entradas desde el Área 41: Masti-Loidi, a la cota 14, y desde Gaztaño, a la cota 25 confluyen a media altura en la cota 46; una vez que se unen, ambos senderos suben hasta la cota 52 y en este punto se separan de nuevo para subir hasta la cota 72, bordeando el monte la primera y hasta llegar a la cota 75 la segunda.

En el sendero que parte desde el Área 41 arranca, a la cota 14 un pequeño sendero más estrecho que el resto y sube con una fuerte pendiente, hasta la cota 71, mediante una escalera practicada en el terreno.

La segunda entrada desde Gaztaño está a la cota 27 y sube perpendicularmente a las curvas de nivel hasta la cota 70, desarrollando el sendero unas pendientes comprendidas entre el 12% el 17%. Por su parte, la entrada desde Las Agustinas se encuentra a la cota 40 y sube hasta la cota 60. En este punto se bifurca subiendo un ramal por una elevada pendiente mediante seis tramos de doce escalones de hormigón armado hasta alcanzar la cota 75; por otro lado sube el otro ramal que arranca desde la bifurcación en la cota 60 con una pendiente del 6,3% hasta la altura de 70 metros. Una vez que estos senderos alcanzan las cotas indicadas se unen creando un circuito anular en el que las pendientes varían entre el 0,6% y el 5,8%.

5.2.2.- Circuitos o recorridos

Podemos diferenciar varios tipos de recorridos dentro del Parque:

